

GAZTETAN JARRIYAK DAMA BATI⁽¹⁾



(BILINCH)

Argitasun aundiko
Perla garistiya,
Nere osasuna ta
Nere eguzkiya,
Baita ere zu zera,
Maitecho eztiya,
Mundu ontako nere
Desio guztiya.

Eziñ fiñago dala
Da chit seguruba,
Zuganako dakatan
Naitasun puruba;
Beti dauzkat zugatik,
Nere aingeruba,
Sentitzen biyotza ta
Pentsatzen buruba.

Isilik gorde arren
Asko dira penak,
Nere biyotz gasuan

(1) Bascuence donostiarra.

Zugatik daudenak;
Biazuna bañore
Minkatsago denak
Bañan zuk nai ezkerro
Goza litezkenak

Dauzkatan pena oyeak
Isilik gorde ta
Uts biyurtuko dira
Zuk naizazu eta;
Bertatik jarriko naiz
Kontentus bete ta,
Neria izatera
Konforma zaita ta.

Ez naiz mutill ederra,
¡Au lana, au lana!
Ez naiz aberatsare,
¡maitecho laztana!
Bañan biyotz bat badet
Oberik ez dana,
Betia zukanako
Amoriyoz dana.

Ausen ezkeintzen dizut
Gutzizko suabe,
¡Arren egin nazazu
Zuriaren jabe!
Bestela penaz ill ta
Lazter naiz lurra be,
Bara ni ezin bizi
Niteke zu gabe.

